

EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIARENA, EUSKAL LUTHERIA ESKOLAN (BELE) EGINDAKO HARI- INSTRUMENTUAK EAE-KO KONTSERBATORIOETAKO ETA MUSIKA- ESKOLETAKO IKASLEEI MAILEGUAN EMATEA ARAUTZEN DUENA

HITZAURREA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko maiatzaren 5eko Aginduaren bidez, arautu gabeko Lutheria-irakaskuntzak arku-instrumentuen adarrean erregulatu ziren, eta Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorio Profesionalean irakaskuntza horien ikasketa- plana ezarri.

Hala, curriculum moderno bat ezarri zen, Europako beste batzuekin bat datorrena. Curriculum horrekin, oraindik ere metodo tradizionalak erabiliz egiten diren lanetarako artisau- maisutasuna eman nahi zaie ikasleei, eta, horrekin batera, baita ezagupen fisiko, kimiko, akustiko edo teknologiko modernoak ere.

Horrela sortu zen, beraz, Bilboko Euskal Lutheria Eskola (BELE), Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak kontserbatorio horretan 1987az geroztik bultzatu zuen esperientziaren oinordekoa. Arku-instrumentuen eraikuntzaren alorreko profesional kualifikatuak prestatzea zen helburua, bai eta profesional horiek gai izatea produktuak ulertzeko, definitzeko eta optimizatzeko, eta ezagupen zientifiko, humanistiko, teknologiko eta artistikoak eta haien lotutako metodo eta prozedurak menderatzeko ere.

Teknikari adituen maila lortzea, alderdi artistikoa, teknikoa eta artisautzakoa bateratzen dituen espezialitate nekeza menperatzeko gai izatea. BELEko ikasleek horixe lortzea da helburua. Baina, horrez gain, Hezkuntza Sailak bete-betean sinesten du musika bitarteko egokia dela konpromisoa, batasuna eta elkartasuna lortzeko, eta gai dela arraza, pentsaera edo egoera sozialaren mugak gainditzeko.

Horregatik, sail honek, eskola barruko ikaskuntza bultzatzeaz gain, lan-ildo bat eratu nahi du, artearen gizarte-eginkizuna barruan hartuko duena. Eta helburu horrekin prestatu du deialdi hau, eskola horretako ikasleek egindako kalitatezko arku-instrumentuak maileguz laga ahal izateko EAEko musika-ikasle gatzeei.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT

1. XEDEA ETA EREMUA

Ebazpen honen helburua da: Euskal Lutheria Eskolan (BELE) egindako hari-instrumentuen mailegua arautzea 2023-2024 ikasturterako, EAEko kontserbatorioetako eta musika-eskoletako ikasleak mailegu-hartzaile direla.

2. ONURADUNAK

EAE n bizi diren eta musika-ikasketak gradu profesionaleko kontserbatorio batean edo Euskal Autonomia Erkidegoko musika-eskola batean egin dituzten ikasleak, maileguan hartu nahi duten instrumentuaren aurreko ikasturtean.

3. ESKAERAK AURKEZTEA

- 3.1 Eskaera ikasleak formalizatu beharko du, edo, bestela, haren legezko tutoreek. Horretarako, I. eranskinean datorren eredia bete beharko da.
- 3.2 Eskaerak dagokion kontserbatorio edo musika-eskolako zuzendaritzaren bermea beharkodu.
- 3.3 Eskaerak ekainaren 26tik uztailaren 7ra arte formalizatuko dira, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:





- Eskatera-inprimakia.
- Musikako ziurtagiri akademikoa, dagokion zentroak emana.
- Txostena, ikasle eskatzaileak musika-ikasketak egin dituen zentroko zuzendariarena, hautagaiaren egokitasuna bermatzen duena.

Eskabideak behar bezala beteta bidali beharko dira helbide elektronikoko honetara, PDF formatuan: lutheria@conservatoriobilbao.com

3.4 Erabilgarri dauden instrumentuak baino eskatzaile gehiago baldin badaude, baremoa ezarriko zaie eskatzaileei, III. eranskinean jasotzen denaren arabera.

Horretarako, baremazio-batzorde bat eratuko da, honako hauez osatua:

- Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona.
- Hezkuntza Sailaren mendeko kontserbatorio profesional bateko zuzendaria.
- BELEko irakasle bat.

3.5 Honako hauek lehenetsiko dira:

- Irakaskuntza profesionalean edo maila baliokideetan instrumentu baten inguruko ikasketak egiten hasiko diren ikasleak.
- Unibertsitateaz kanpoko ikasketetarako beka jaso duten ikasleak.
- Aurretik maileguan hartutako tresna baten onuradun izan ez diren ikasleak.
- Berdinketa balego, ikasle gazteena lehenetsiko da.

3.6 Maileguzko instrumentu baten onuradunek, edo, bestela, haien legezko tutoreek, mailegu-kontratua sinatu beharko dute II. eranskineko ereduaren arabera.

4. ESKURAGARRI DAUDEN INSTRUMENTUAK ETA MAILEGUZ LAGATZEKOBALDINTZAK

4.1 Hezkuntza Sailak hari-instrumentu hauek jarriko ditu eskatzaileen esku:

- 10 Biolin (denak 4/4 neurrikoak)
- 10 Biola (denak 4/4 neurrikoak)
- 10 Biolontxelo (denak 4/4 neurrikoak)

4.2 Osorik muntatuta eta kokotsekoarekin lagako da instrumentua, baina arkurik, kuxinik eta kutxarik gabe.

4.3 Hezkuntza Sailak maileguzko instrumentua erabiltzeko eskubidea besterik ez dio emango onuradunari, eta inoiz ez instrumentuaren jabetza.

4.4 Maileguaren iraupena.

- Instrumentuaren maileguak ikasturte akademiko bat iraungo du.

4.5 Mailegua berritzea:

- Instrumentuaren mailegua beste bi ikasturte akademikorako berritu ahalko da, ebazpen honetan jasotako baldintza beretan, baldin eta interesdunak bere musika-ikasketekin jarraitzen badu.
- Luzapena irakaslearen balorazio positiboaren mende egongo da: ikaslearen errendimendu ona eta instrumentuaren egoera ona egiaztatu beharko dira. Txosten horrek (IV. eranskina) ekainaren 28a baino lehen egon beharko du Euskal Lutheria Eskolan (BELE).
- Edonola ere, eskatzaileak edo haren legezko tutoreek mailegu-kontratu berria sinatu beharko dute.
- Luzapena emanez gero, onuradunak instrumentuarekin joan beharko du Euskal Lutheria Eskolara (BELE), Eskolak ezartzen duen egunean, mailegu-kontratu berri



bat sinatzeko.

- Kontratua berritzen bada, onuradunak maileguzko instrumentua erabili ahalko du kontratu berria sinatzen den unetik bertatik, udako oporraldia barne hartuta.
- Edonola ere, instrumentuaren mailegua berritzeko, 3.6 puntuan jasotzen diren lehenetasun-baldintzak bete beharko dira.

4.6 Maileguaren eta itzulketaren baldintzak.

- Instrumentuaren mailegua ezin da besterendu. Onuradunak konpromisoa hartzen du maileguzko instrumentua hirugarrenei ez uzteko.
 - Maileguak irauten duen bitartean, onuradunek eta haien legezko tutoreek konpromisoa hartuko dute instrumentuaz arduratuko direla eta instrumentua zainduko dutela, eta instrumentuak kalterik izanez gero, hala zentroan nola kanpoan, konponduko dutela.
 - Onuradunak edo haren legezko tutoreek aseguru-poliza bat kontratatu beharko dute, tresnak maileguaren aldian jasan ditzakeen kalte osoak edo partzialak estaltzeko, kontratatzen den aseguru-konpainiak ezarritako baldintza orokorrekin bat etorritz.
 - Tresnak mailegua indarrean dagoen bitartean kalteren bat jasango balu, onuradunak edo legezko tutoreek Lutheria Euskal Eskolari (BELE) jakinarazi beharko diote, eta Luthier profesional batek konpontzeaz arduratuko dira.
 - Mailegatutako tresnak onuradunak edo legezko tutoreek izenpetutako aseguru-polizaren barruan sartzen ez diren kalteak jasoko balitu, onuradunek edo, hala badagokio, legezko tutoreek konpontzea ordaindu beharko dute, baita daitezkeen gastu guztiak ere.
 - Tresna galdu bada, konpondu ezin bada edo lapurtu badute, onuradunek edo legezko tutoreek konpromisoa hartzen dute Lutheria Euskal Eskolari (BELE), 20 eguneko epean, tresna hori egiteko erabilitako materialen kostuengatik honako zenbateko hauek ordaintzeko:
 - Biolina → 400 €
 - Biola → 500 €
 - Biolontxelo → 1.200 €
 - Ikasturte akademikoa amaitu ondoren, onuradunak maileguzko instrumentua itzuli beharko dio Euskal Lutheria Eskolari (BELE), eskolaren webgunean adierazten den epearen barruan.
 - Instrumentuaz gain, honako hauek entregatu beharko dira:
 - a) Instrumentuaren balorazioari buruzko txostena, mailegu-hartzailearen irakasleak egin (V. eranskina).
 - b) Itzulketa-inprimaki espezifiko bat, zeinean mailegu-hartzailearen instrumentu-irakasleak ziurtatuko baitu instrumentua ondo dagoela (IV. eranskina).
 - Kontserbatorioak edo musika-eskolak instrumentua erretiratu ahal izango du ikaslea bidezko arrazoirik gabe eskoletara agertzen ez bada sarritan, instrumentua behar bezala erabiltzen ez badu, nabarmenki hondatuta badago edo behar bezala justifikatuta dauden beste kasu batzuetan.
- Horretarako, zentroko idazkari akademikoak, irakaslearen txosten negatiboa jaso ondoren, onuradunari jakinaraziko dio maileguaren etena, eta arrazoia azalduko dio.

Eugenio Jiménez Ibáñez

IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ZUZENDARIA



I. eranskina INSTRUMENTUA MAILEGUZ HARTZEKO ESKAERAREN FORMULARIOA		
IKASLEAREN DATU PERTSONALAK:		
Izena:	Abizenak:	
Jaioteguna:	Adina:	NANa:
Helbidea:	PK:	Probintzia:
Helbide elektronikoa:	Telefono finkoa:	Mugikorra:
GURASOEN EDO LEGEZKO TUTOREEN DATUAK: 18 urtez azpiko eskatzaileentzat		
Amaren/aitaren/legezko tutorearen izen-abizenak:	NANa:	Harremanetarako telefonoa:
ESKATZEN DEN MAILEGUZKO INSTRUMENTUA:		
<input type="checkbox"/> Biolina (4/4) <input type="checkbox"/> Biola (4/4) <input type="checkbox"/> Biolontxelo (4/4)	Zer alditarako eskatzen den mailegua: <input type="checkbox"/> 20____/20____ ikasturte akademikoa <input type="checkbox"/> BERRITZEA: 20____/20____ ikasturte akademikoa	
IKASLEAREN DATU AKADEMIKOAK:		
Aurreko ikasturtean egindako musika-ikasketak: <input type="checkbox"/> Ikasketa arautuak <input type="checkbox"/> Ikasketa ez-arautuak Espezialitatea: Maila:	Musika-ikasketak egiten ari zaren zentroa: Irakaslea:	Egiten ari zaren bestelako ikasketak: <input type="checkbox"/> DBH Maila: <input type="checkbox"/> Batxilergoa Maila: <input type="checkbox"/> LH Zikloa: <input type="checkbox"/> Beste batzuk (zehaztu):
<p>Maileguak irauten duen bitartean, eskatzaileak eta haren aitak/amak/legezko tutoreak hitzematzen dute instrumentuaz arduratuko direla eta instrumentua zainduko dutela, eta mailegua arautzen dutenoinarriak¹ onartzen dituzte, bai eta horren ondoriozko konpromisoak bereganatzen ere.</p>		
Sinadura: _____ Data: _____ NANa: _____		
ATXIKI BEHAR DIREN AGIRIAK:		
<ul style="list-style-type: none"> – NANaren/pasaportearen/bizileku-txartelaren kopia. – Eskatzailea EAEko musika-ikastetxe batean matrikulatuta egotearen ziurtagiria. – Musikako ziurtagiri akademikoa, dagokion zentroak emana. – Ikasle eskatzaileak musika-ikasketak egin dituen ikastetxeko zuzendariaren txostena, hautagaiarengaitasuna bermatzen duena. – Luzapena eskatuz gero, balorazio positiboko txostena. 		



II. eranskina

BILBOKO EUSKAL LUTHERIA ESKOLAREN (BELE) INSTRUMENTU BATMAILEGUAN
HARTZEKO KONTRATUA

IKASLEAREN DATU PERTSONALAK:

Izena:

Abizenak:

Jaioteguna:

Adina:

NANa:

Helbidea:

PK:

Probintzia:

Helbide elektronikoa:

Telefono finkoa:

Mugikorra:

GURASOEN EDO LEGEZKO TUTOREEN DATUAK:

18 urtez azpiko eskatzaileentzat

Honako honen izen-abizenak:

NANa:

Harremanetarako telefonoa:

 ama aita legezko tutorea:

MAILEGUAN EMATEN DEN INSTRUMENTUA:

 Biolina (4/4) Biola (4/4) Biolontxelo (4/4) Erregistro zk.: _____

Maileguaren indarraldia:

 20___/20___ ikasturte akademikoa Entrega-eguna: ___ / ___ / ___ Itzulketa-eguna: ___ / ___ / ___

Behean sinatzen duenak baldintza onetan jaso du, Hezkuntza Sailaren eskutik –BELEk ordezen du–, goian adierazitako musika-instrumentua.

Maileguak irauten duen bitartean, onuradunak eta haren aitak/amak/legezko tutoreak instrumentuaz arduratzeko eta instrumentua zaintzeko konpromisoa hartzen dute, eta mailegua arautzen duten oinarriak² onartzen dituzte, barne hartuta utzitako instrumentua hondatu, galdu edo beste ezer gertatuz gero aintzat hartu behar direnak, eta beren gain hartzen dituzte horren ondoriozko konpromisoak.

Sinadura: _____ Data: _____ NANa: _____

INSTRUMENTUA ENTREGATZEKO ADOSTASUNA:

Instrumentua entregatzen duen BELEko irakaslearen izen-abizenak:

 Goian adierazitako instrumentua egoera onean entregatu da. Oharrak (zehazteko, beharrezkoa izanez gero):

Sinadura: _____ NANa: _____



III. ERANSKINA		
BAREMAZIO-IRIZPIDEAK, BELE-KO MUSIKA-INSTRUMENTUAK MAILEGUZ HARTZEKO ESKAERENAK		
1. IRIZPIDE AKADEMIKOA		
Espedientearen batezbestekoa	Aurkeztu behar diren agiriak: Ikaslea musika-ikasketak egiten ariden zentroak emandako ikasketa-ziurtagiria.	
	BATEZ BESTEKO NOTA	BAREMOA (puntuak)
	Bikain	10
	Oso ongi	7
	Nahikoa	5
2. ADINA		
Adina	13	10
	14	9
	15	8
	16	7
	17	6
	18 edo gehiago	5
3. BESTE MEREZIMENDU BATZUK		
Bekaduna	- Egiaztageria	5
Merezimendu artistikoak	- Ikastetxearteko orkestretan partehartzea	3 p ikasturte akademiko bakoitzeko
	- Kontzertu pedagogikoak	2 p kontzertu bakoitzeko
	- Beste emanaldi batzuk (ez dira baloratuko ikaslea matrikulatuta dagoen zentrokoentzunaldiak).	1 p emanaldi bakoitzeko (gehienez 10 p)



IV. ERANSKINA INSTRUMENTUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK (BELEk betetzeko)			
Instrumentu mota:			
Erregistro zk.:			
Egilea:			
Data:			
Eredua:			
Instrumentu mota:			
IDENTIFIKAZIO-DATUAK			
Hari dardarkariaren luzera		Osagarrien marka eta modeloa	
Kaxa harmonikoaren luzera		Larakoak	
Stop-aren luzera		Sokak	
Mensur-aren luzera		Kordala	
Proiekzioa		Zubia	
Zubiaren eta arimaren posizioa		Kokotsekoa	
Lehenengoaren eta laugarrenaren altuera diapasoaren bukaeran		Osagarrien marka eta modeloa	
Berniza: kolorea, materiala		Larakoak	
OHARRAK			
INSTRUMENTUAREN EGOERAREN EGIAZTAGIRIA Ikaslearen instrumentu-irakasleak betetzeko instrumentua itzuli baino lehen			
<p>Entrega-eguna: 20__ / __ / __</p> <p>Instrumentua itzultzeko aurreikusitako eguna: 20__ / __ / __ (BELEk adierazten duena) Ikaslearen instrumentu-irakaslearen izen-abizenak: _____</p> <p>Zentroa:</p> <p><input type="checkbox"/> Instrumentua kontserbazio-egoera onean dago; ez zaio kalterik ikusten.</p> <p><input type="checkbox"/> Instrumentuak kalte hauek ditu (zehaztu): _____</p> <p>Irakaslearen sinadura _____ Data: 20__ / __ / __</p>			

